



BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

XV LEGISLATURA

Serie A:
PROYECTOS DE LEY

Núm. 53-3

Pág. 1

SUPLEMENTO EN EUSKERA AL NÚM. 53-3

APROBACIÓN POR EL PLENO

121/000053 Proyecto de Ley Orgánica por la que se autoriza la ratificación de cuatro enmiendas al artículo 8.2 del Estatuto de Roma de la Corte Penal Internacional.

El texto insertado a continuación ha sido traducido por la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, con carácter de versión auténtica en los términos previstos en la disposición adicional segunda de la Reforma del Reglamento del Congreso, aprobada el 23 de septiembre de 2023, y en virtud del Convenio de colaboración entre el Congreso de los Diputados y dicha academia, para la formación, conocimiento y difusión del euskera, especialmente en el ámbito del lenguaje jurídico.

BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

Serie A Núm. 53-3

Pág. 2

NAZIOARTEKO ZIGOR GORTEAREN ERROMAKO ESTATUTUAREN 8.2 ARTIKULUARI EGINDAKO LAU ZUZENKETA BERRONESTEKO BAIMENA EMATEN DUEN LEGE ORGANIKOAREN PROIEKTUA

Hitzaurrea

Erromako Estatutuaren bidez sortu zen Nazioarteko Zigor Gortea (NZG), zeina 1998ko uztailaren 17an onetsi baitzen. Espainiak 2000ko urriaren 24an berronetsi zuen, eta 2002ko uztailaren 1ean jarri zen indarrean gure herrialdean.

Erromako Estatutuaren 121. artikulua ezarritakoaren arabera, Estatutua indarrean jartzen denetik zazpi urte igaro direnean, edozein estatuk zuzenketak proposa ditzake, eta Estatu Kideen Batzarrak horiek aztertuko ditu.

Estatu Kideen Batzarrak 12. osoko bilkura egin zuen 2017ko abenduaren 14an, eta ICC-ASP/16/Res.4 ebazpena onetsi zuen. Ebazpen horrek hiru zuzenketa egin zizkion 8.2 artikuluari, gerra-krimenen barnean kasu gehiago sartzeko, zehazki, gerra-testuinguruetan, hala nazioarte mailakoetan, nola barne-mailakoetan, arma jakin batzuk erabiltzeari buruzkoak (arma biologikoak, zati aurkiezineko armak eta laser-arma itsugarriak):

— 8.2 artikulua b) xxvii) apartatua eta 8.2 artikulua e) xvi) apartatua: «mikrobio-agentek edo bestelako agente biologikoak, edo toxinak baliatzen dituzten armak erabiltzea, edozein dela ere haien jatorria edo beraiek ekoizteko modua»;

— 8.2 artikulua b) xxviii) apartatua eta 8.2 artikulua e) xvii) apartatua: «giza gorputzean X izpien bidez aurkitu ezin daitezkeen zatien bidez kalte egitea xede duen edozein arma erabiltzea»;

— 8.2 artikulua b) xxix) apartatua eta 8.2 artikulua e) xviii) apartatua: «ikusmen ez areagotuan, alegia, begi babesgabea edo ikusmena zuzentzeko gailuren bat duen begian, itsumen iraunkorra eragiteko berariaz sortutako laser-armak edo borroka-funtzio hori ere badutenak erabiltzea».

Estatu Kideen Batzarrak 6. osoko bilkura egin zuen 2019ko abenduaren 6an, eta ICCASP/18/Res.5 ebazpena onetsi zuen. Ebazpen horrek zuzenketa bat egin zion 8. artikuluari, 2.e) apartatuari xix) apartatua gehitzeko, alegia, nazioarte-mailakoak ez diren gatazketan gosea biztanleria zibilaren aurkako gerra-metodo gisa nahita erabiltzeari buruzkoa. Hala, nazioarte-mailakoekin parekatu ziren nazioarte-mailakoak ez diren gatazkak; izan ere, Erromako Estatutuak krimen horiek arautzen ditu 8.2.b) xxv) artikuluan. Hona zuzenketa:

— 8.2. artikulua e) xix) apartatua: «biztanleria zibilari gosea pairaraztea nahita, gerra-metodo gisa; alegia, bizirik irauteko ezinbesteko gaiez gabetzea, sorospen-hornidurak nahita oztopatzea barne».

Espainiak lau zuzenketa horiek berronestea —biztanleria zibilarentzako biziki kaltegarriak diren jokabideak sartzen dituzte, aurretiaz jasota ez zeuden eta; esaterako, armamentu bereziki kaltegarriak edo gizagabeak erabiltzea edo gosetea gerrarako arma gisa baliatzea— bat dator gure herrialdeak giza eskubideekin eta Nazioarteko Zigor Gortearekin sortze beretik hartutako konpromisoarekin, gizateriaren aurka egindako krimen larrienen aurrean zigorgabetasunaren kontrako borroka gidatzen duen zigor-justizia unibertsaleko sistemaren giltzarria baita gorte hori.

Erromako Estatutuaren 8. artikuluari egindako lau zuzenketek berekin dakarte Nazioarteko Zigor Gorteari transferitutako ahalak zabaltzea. Konstituziotik eratorritako eskumenak direnez, aipatu zuzenketen berronespena lege organiko baten bidez baimendu behar da, Konstituzioaren 93. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

BOLETÍN OFICIAL DE LAS CORTES GENERALES

CONGRESO DE LOS DIPUTADOS

Serie A Núm. 53-3

Pág. 3

Artikulu bakarra. *Berronesteko baimena ematea.*

Baimena ematen da Espainiak berronets ditzan Nazioarteko Zigor Gortearen Erromako Estatutuari egindako zuzenketak, gerra-krimenei buruzkoak, zeintzuen bidez 8.2.b) xxvii), 8.2.e) xvi), 8.2.b) xxviii), 8.2.e) xvii), 8.2.b) xxix), 8.2.e) xviii eta 8.2.e) xix) artikulua gehitzen baitzaizkio hari.

Azken xedapenetako lehenengoa. *Eskumen-titulua.*

Lege organiko hau Konstituzioaren 149.1.3 artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz ematen da; artikulua horrek nazioarteko harremanen arloko eskumen eskusiboa eratxekitzen dio Estatuari.

Azken xedapenetako bigarrena. *Indarrean jartzea.*

Lege organiko hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

NAZIOARTEKO ZIGOR GORTEAREN ERROMAKO ESTATUTUAREN 8. ARTIKULUKO 2. PARAGRAFOARI EGINDAKO ZUZENKETAK

A. Nazioarteko Zigor Gortearen Erromako Estatutuaren Estatu Kideen Batzarrak 12. osoko bilkuran, 2017ko abenduaren 14koan, ICC-ASP/16/Res.4 ebazpenaren bidez onetsitako zuzenketak:

— Zuzenketa, jarraian ageri den testua Erromako Estatutuaren 8. artikuluko 2. paragrafoaren b) xxvii) eta e) xvi) apartatu gisa txertatzeko:

«Mikrobio-agentek edo bestelako agente biologikoak, edo toxinak baliatzen dituzten armak erabiltzea, edozein dela ere haien jatorria edo beraiek ekoizteko modua»;

— Zuzenketa, jarraian ageri den testua 8. artikuluko 2. paragrafoko b) xxviii) eta e) xvii) apartatu gisa txertatzeko:

«Giza gorputzean X izpien bidez aurkitu ezin daitezkeen zatien bidez kalte egitea xede duen edozein arma erabiltzea»;

— Zuzenketa, jarraian ageri den testua 8. artikuluko 2. paragrafoko b) xxix) eta e) xviii) apartatu gisa txertatzeko:

«Ikusmen ez areagotuan, alegia, begi babesgabean edo ikusmena zuzentzeko gailuren bat duen begian, itsumen iraunkorra eragiteko berariaz sortutako laser-armak edo borroka-funtzio hori ere badutenak erabiltzea»;

B. Nazioarteko Zigor Gortearen Erromako Estatutuaren Estatu Kideen Batzarrak 9. osoko bilkuran, 2019ko abenduaren 6koan, ICC-ASP/18/Res.5 ebazpenaren bidez onetsitako zuzenketa:

— Zuzenketa, jarraian ageri den testua Erromako Estatutuaren 8. artikuluko 2. paragrafoaren e) apartatuko xix) azpiparagrafo gisa txertatzeko:

«Biztanleria zibilari gosea pairaraztea nahita, gerra-metodo gisa; alegia, bizirik irauteko ezinbesteko gaiez gabetzea, sorospen-hornidurak nahita oztopatzea barne».